Txosten honek Irungo Udal Artxiboaren kudeaketaren emaitza jasotzen du laburbilduta (bertan jasotako dokumentu funtsaren tratamendu, zaintza, kontserbazio eta hedapenaren ikuspegitik begiratuta), eta jaso egiten ditu, era berean, Irungo Udal Artxiboak zuzenean antolatu dituen eta modu aktiboan parte hartu duen jarduerak, hori guztia 2014. urteetan zehar.

Aurreko urteetan finkaturiko bideari jarraiki, eta Zerbitzuaren izaera ikusirik, helburu nagusia izan da dokumentu funtsak jaso, zaindu eta zerbitzua ematea, baina horrez gainera, Artxiboa kultur eremu dinamiko bihurtzea eta jendeak, oro har, erabiltzeko erraz bilakatzea izan da beste helburu nagusietako bat.

Halaxe egiaztatzen da ondoko lerroetan.

2. IRUNGO UDAL ARTXIBOA.

2014ko abenduaren 31n, guztira 1.500 metro lineal artxibo dokumentazio inguru daude jasota Irungo Udal Artxiboan, hemeroteka (prentsa eta Aldizkari Ofizialak) eta liburutegi osagarria kontuan hartu gabe. Horietatik 243 funts historikoari dagozkio eta gainerakoak administrazio funtsari. Gaur egun horiek guztiak erraz aurki daitezke bertan dauden deskribapen dokumentuei esker, hauexek zehatz esateko: espediente historikoei dagokien inbentario orokorra, eta baita datu-base informatizatua ere azken horiei, eta gainerako Funtsei (Administratiboa, Hemeroteka, Inprimakiak eta Fototeka) dagokiena.

Instalazioen azalerak 425 metro karratu hartzen ditu guztira, eta horietatik 400 artxibo erabilerarako dira soilik. Azken horietatik 310 metro karratu gordailuei dagozkie eta horietan 1.848 metro lineal apal trinkotu daude (armairu biratzaileak), eta horiei beste 381 metro lineal erantsi behar zaizkie apal irekietan, gordailuen eta ikertzaileen gelaren artean banatuak horiek.

Kontsultarako gelak bi dira, 25 plazarekin eta Interneten sartzeko 4 gunerekin. Era berean, lan egiteko 4 gela daude, eta horietan 12 lagun sar daitezke gutxienez. 8 ordenagailu daude horien eskura.

Bi dira funtzionario izaerarekin Zerbitzuarekin loturik dauden pertsonak: Sagrario Arrizabalaga (Artxiboko arduraduna zerbitzu eginkizunen erregimenean) eta Antonio de las Heras (ordenantza). Gainera, 2014ko apirilaren 23tik 2015eko urtarrilaren 13ra bi Administrari laguntzaile ere aritu dira behin-behinean lanean sei hilabetez (Asunción Aramburu eta Azucena Escudero).

Komeni da azpimarratzea gaur egun gabezia egoeran dagoela Zerbitzua, aurreko Artxibozainak erretiroa hartu ondoren oraindik ez baita plaza bete. Horren ondorioz, garbi dago gaur egun lanean ari diren langileak gainahalegin handia egiten ari direla (Memoria honen emaitzak horren erakusgarri), egoera horrek ahalik eta eragin txikiena izan dezan erabiltzaileengan.

Gorabehera aipagarri gisa, nabarmendu behar da, oro har, publikoari sarrera mugatu egin behar izan zitzaiola dokumentu funtsa babesteko uztaileen hasieran hartu ziren prebentzio neurrien ondorioz. Hori guztia, gordailu nagusiko estalkia irazgaizteko obrak zirela-eta, ur iragazketak izateko arriskua zegoelako. Hori bai, abuztuaren 11n Artxiboak berriro ateak zabaldu zituen arte, bai erantzun zitzaien barneko dokumentazio eta informazio eskaerei, eta salbuespen gisa, baita Udaletik kanpoko beste erabiltzaile batzuei ere, funtsak eskuratzeko baldintzek horretarako aukera ematen zuten heinean.



3. ARTXIBOAREN KUDEAKETA.

3.1. Artxibatzeako dokumentuak jaso eta sartzea.

3.1.1 Beste Arloetatik etorritako artxibatzeako dokumentuak jaso (sartu) eta antolatzea.

Irungo Udaleko Arloetatik hainbat dokumentazio bidali dituzte 2014. urtean zehar eta gehienak, 2013. urte amaieran jaso zirenekin batera, dagoeneko antolatu (sailkatu eta ordenatu, grapak, klipak edo gomak bezalako elementu kaltegarriak kendurik), deskribatu (datu-basean) eta kokatu dira dagozkien instalazio unitateetan.

- **Gizarte Ongizatea:**

- ✓ 4 espediente bidali dituzte: Ordezkararen ebazpenak (2008), dagokion Batzordeko deialdiak eta aktak (2008), Arloko Diru-laguntza deialdiak (2008), eta beste 2, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako I. eta II. Planei dagozkienak (2007-2011); gaur egun 5958/12, 1664/4-1664/5, E-8-VI-528 eta 698/26-698/27 Artxibo erreferentziak dituzte horiek.

- **Langileria:**

- ✓ Arlo honetatik 39 espediente iritsi dira Kontsumo Mailegurenak (2011-2013) (katalogo zenbakiak 5948/1 - 5948/20, 2951/5 - 2951/11 eta 6400/1 - 6400/12);

eta Lehendakaritzako eta Barne Erregimeneko Ebazpenak (1997-2011) (katalogo zenbakiak E-8-VI-530-2 - E-8-VI-536-3).

Ohikoa den bezala, espedienteak bidaltzeko orduan erakusten duen konpromisoagatik nabarmentzen da Langileria Arloa, oso ondo antolatuak bidaltzen baititu, eta espediente bakoitzean dauden dokumentuen aurkibidea ere izaten dute. Horri esker, oraingoan ere Udal Artxiboko langileek metalezko elementuak kendu, deskribatu eta katalogo zenbakia jarri besterik ez dute egin behar izan, Administrazio Funtsean berehala jasotzeko aurretiko urrats gisa.

- **Idazkaritza:**

- ✓ Bi ekitaldietan eta hurrenez hurren 39 espediente iritsi dira guztira mozioei, Hiriko Urrezko Domina ezartzeari, kaleen eta plazen izendapenei, Udalbatzaren osaerari, Alkatetzaren eskuordetzei, hitzarmenei eta instituzio atxikipenei... dagozkienak (2007-2014) (698/28-698/30, 1065/20-1065/22, 6313/1-6313/14, 1207/17, 6288/2-6288/5, 6314/18-6314/21 eta 6384/8-6384/11).

2014. urtean zehar jaso den Administrazio Funtseko gainerako dokumentazioarekin egin bezala, behin deskribatu ondoren, instalazio unitateetan jarri eta identifikatu da, Artxiboan aurretik zegoen dokumentazioa eratzeko lanak egin diren bitartean libre geratu diren lekuak aprobetxatuz. Geroago aipatuko ditugu horiek.

- **Estatistika:**

- ✓ Azken urte hauetan egin ohi den bezala, dokumentuen sarrera eta irteera erregistro liburuak formatu digitalean (2 CD) sartu dira zerbitzu honetan. Oraingoan, 2012. eta 2013. urteei dagozkienei A-3-473 eta A-3-474 katalogo zenbakiak eman zaizkie Funtseko Historikoan. Ez ordea Europako Parlamenturako 2014ko hauteskundearen aktak, horiek Funtseko Historikoko dokumentu sail gisa jaso baitira 6400/1 erreferentziarekin.

- **Hirigintza:**

1980ko hamarkadan plangintza alorreko plano "historiko" batzuk eskatu ziren Hirigintzatik, Funtseko Historikoan nahiz Administrazio Funtsean gordeta zeudenak. Oso handiak zirenez eta batzuk hondatuta zeudenez, bere garaian zaharberritu, eta karpitetan eta "tutu" euskarrietan behar bezala gorde ziren Arlo horren kontura, eta digitalizatu egin ziren, baita zaharrenak eta adierazgarrienak ere.

Zerbitzu honetara itzul zitezten beharreko erreklamazioa egin ondoren, uztailan sartu ziren, eta zein espediente zehatzekin lotu behar ziren jakin ondoren, beharreko lekuan jaso ziren. 18 dira guztira, 1846-1952 artekoak (batzuek ez dute datarik) eta hainbat profesional teknikorik eginak dira, honako hauek, besteak beste, Policarpo Balzola, Antonio Cortázar, Mariano José de Lascurain eta Juan Machimbarrena.

Itxura guztien arabera, Hiriko Hiri Antolamendurako Plan Nagusia idazteko erreferentzia gisa erabiltzeko eskatu zituzten dokumentu horiek. Kontuan izanik material hori oso garrantzitsua eta adierazgarria dela, Artxiboan sartu zen une beretik askotan kontsultatu dute Hiriaren bilakaera fisikoaren berri izan nahi duten ikertzaileek.

- **Kontsumoa:**

- ✓ 2014. urte amaieran hainbat dokumentu bidali zizkiguten Kontsumo Arlotik. Lekuz aldatu zirenean (HAZen bulegoetara) lehengo bulegoetan (Udaltzaingoaren egoitza) geratutako dokumentazioa da, dokumentu gehienak Zerbitzu honetan jaso baziren ere 2013an, urteko memorian adierazten den bezala.

Zehatzago esateko, oraingo honetan bidalitako espedienteek (13 agiritegi) Arloko Ordezkararen ebazpenak (2001-2011), Korrespondentzia (2004-2005), Erreklamazio orriak (2008) eta bide publikoan saltzeko baimenak (2004) dituzte.

Horiek guztiak berrikusi, deskribatu eta bere lekuan jartzea falta da, baina 2015eko lehen hiruhilekoan lan horri ekitea aurreikusten da.

3.1.2. Aurrez Artxiboan dagoen dokumentazioa tratatzeko beste lan batzuk.

Aurreko atalean aipatu dugu 2014. urtean zehar jasotako dokumentazioaren zati bat antolatu (sailkatu eta ordenatu) eta deskribapen informatizatua egiteko lanak burutu direla, baina bestalde, jarraitu egin da data hori baino lehenagotik Zerbitzuan zeuden funtsak erkatzen. Honako lan hauek egin dira, esate baterako:

- Ildo beretik eta beste lan batzuen artean, sei hilabetez kontrataturiko bi administrariak hasi ziren Artxiboko aplikazio informatikoan *husten* konparezentzia sailak, ehorzketen eta gainbalioen espedienteak (azken kasu honetan Zerbitzuan gordetakoetatik berriekin hasita (2000-2001)⁸, behar bezala digitalizatu eta balidatu ondoren artxibatzeko).

Gainera, Funts Historikoari dagokionean, lan berdina egin dute, hauxe da, A-1-196 eta A-1-197 katalogo zenbakidun akta liburuetan jasotako Osoko Bilkurak (1966-1968) eta Batzorde Iraunkorrak (1963-1966) hartutako erabakien deskripzio fitxa idatzi dute. Horri esker, 2.934 erregistro berri sartu dira aplikazio informatikoan, eta horrenbestez, 100.078 dira guztira Funts Historikorako 2014ko abenduaren 31n.

- Administrazio Funtsaren barneko dokumentazioaren zati bat erkatzen jarraitu dugu: haietako batzuetan okerrak daude edo ez dago behar bezalako zehaztapenik aurkitu ahal izateko; beste batzuk bikoiztuak daude edo/eta hainbat espedientetan sakabanatuak, bat bakarra osatu beharrean; emandako posta helbideak ez datoz bat egungo kaleen zenbakiekin eta izenekin; eta behin eta berriz eskatzen dira horiek (Hilerria, Gera Zibila...) kontsultarako.

⁸ 9.230 - 9.260 instalazio unitateetan jasoak, 9.259 izan ezik.

Horri dagokionean, zehatz esateko, honako katalogo zenbaki hauek dituzten Administrazio Funtseko agiritegiak berrikusi dira: 162, 698, 964, 1.065, 1.192, 1.194, 1.195, 1.203, 1.373-1.375, 1.377, 1.380-1.384, 1.386, 1.398, 1.443, 1.463, 1.465, 1.491, 1.492, 1.514, 1.545, 1.604, 1.625, 1.664, 1.666, 2.643, 5.731, 5.920, 5.925, 5.948, 5.950-5.952, 5.957-5.959, 5.962-5.984, 5.986-5.993, 6.000-6019, 6.223, 6.288, 6.289, 6.314, 6.338, 6.358, 6.374, 6.384, 6.400, 6.477, 6.489, 6.518, 7.216 eta 9.690. Horrenbestez, banan-banan berrikusi dira haietan zeuden 3.390 espedienteak, eta haien edukiaren erreseina hobetu, osatu eta eguneratu da datu-basean, errazago aurkitzeko deskribatzaileak erantsita.

- Aipatu ditugun lan horiekin batera, bikoiztutakoak garbitu edo nagusian beste espediente bat edo batzuk erantsi diren kasuetan, lekua hutsik geratu zen instalazio unitateetan.

Urtean zehar jasotako dokumentuak instalazio unitate horietan sartzeaz gainera, beste horrenbeste egin da Udal Epaitegitik etorri zen eta 1990ko hamarkadan Artxiboan sartu zen dokumentazioaren zati batekin. Dokumentazio horren zati bat antolatu eta deskribatu gabe dago oraindik. Zehatz esateko, 2014. urtean zehar Administrazio Funtsean sartu dira honako hauei dagozkien espedienteak: oinarrizko ikasketen ziurtagiriekin (1964-1967), Hauteskunde erroldarekin (1931 eta 1964-1975), udal hauteskundeekin (1920 eta 1966) eta erreferendumeekin (1966) loturikoak.

3.2. Dokumentu ondarearen kontserbazioaren kontrola.

Udal Artxibo honetan jasotako dokumentu funtsa behar bezala kontserba dadin ziurtatzeko, eta hura ziurtatzeko baliabide tekniko eta giza baliabiderik ez izanik, urtean zehar TSA, S.L. enpresaren esku utzi da funts hori kontserbatzeko baldintzen kontrola, eta baita, hala behar izanez gero, hartu beharreko neurrien proposamena ere.

Interesatuak eskaintza ekonomikoa aurkeztu eta onartu ondoren, aldi behin ikuskapen bisita egin zuten kontratistaren langileek instalazioetara, ingurumen datuak, paperaren hezetasuna, intsektuen jarduera eta argiaren intentsitatea aztertuz, eta lagin mikrobiologikoak ere hartu zituzten aztertzeko. Aldian behingo txostenetan jaso dira dagozkien konklusioak, eta Artxibo honetan dagoen ohiko urteko txostenean ageri dira laburbilduta izandako emaitza nagusiak.

Ur iragazketa handiak sumatuta, beheko gordailuko estalkia irazgaizteko premia lanari uztailan ekin ondoren, iragazketa horiek dokumentu funtsean eraginik izan ez zezaten, armairu biratzaile guztiak behar bezala babestu ziren eta Funtz Historikoaren zati handi bat lekuz aldatu zen aldi baterako eta goiko gordailura eraman zen. Horren ondorioz, sarrerako kapituluari adierazi den bezala, behin-behinean bertan behera utzi behar izan zen, oro har, jendeari ematen zaion arreta.

Berrito jarduerari ekin ondoren, azken hilabeteetan Zerbitzuaren funtzionamendu arrunta baldintzatua dago nolabait esateko; izan ere, arestian aipaturiko lan horiek egin

arren, arazoa ez da erabat konpondu. Horrenbestez, beharrezkoa da neurri tekniko egokiak laster hartzea arazoa behin betiko konpondua gera dadin.



3.3. Dokumentuak zaharberritzea.

Krisi ekonomikoaren ondorioz, 2014rako udal aurrekontuan ez zen inolako partidarik jaso "Ondare Inbertsioak" kapitulurako, eta horrenbestez, ezin izan zen dokumentuen zaharberritze lanik egin.

3.4. Liburutegi osagarriko eta hemerrotekarako argitalpenak.

Kontuan izanik ez dela Artxibo baten egitekoetako bat eguneroko prentsa kontsultatzeko zerbitzua ematea, aipatzekoa da 2012ko otsailaz geroztik honako hauek erosteari utzi egin zitzaiola (zehatz esateko, "El Diario Vasco", "Noticias de Gipuzkoa", "El Mundo", "El País", "Público" eta "Berria"). Orduz geroztik Alkatetzatik bidaltzen diren ale zaharrak jasotzen dira Artxibo honetan eta horiek herritarren eskura egoten dira sei hilabetez. Epe hori igaro ondoren erretiratu egiten dira birziklatzeko, "El Diario Vasco" izan ezik, hori osorik koadernatzen jarraitzen baitugu.

Argitalpen serializatuei dagokienean, bai jarraitzen dugu doaneko obren bilduma osatzen erakunde argitaratzaileek ematen dizkiguten aleei esker, esate baterako, "Irunero", "Aia", "Bidasoaldetik", "Irun: udal aldizkaria" eta abar.

Liburutegi espezializatuari dagokionean, aipatzekoa da, pertsona partikularrek eta erakunde publiko nahiz pribatuek inolako interesik gabe emaniko liburu batzuk ere jaso direla. Horietako gehienak (28 guztira) behar bezala katalogatu dira eta Liburutegi Osagarrian jaso dira, Ikertzaileen aretoan, abenduaren 31n.

3.5. Digitalizazioa.

3.5.1. Aurreikuspenak prentsa historikoaren digitalizazioaren eta katalogazioaren alorrean.

Gaur egun Hemerrotekako Funtsa kontsulta daiteke Artxiboko instalazioetan, baina prentsa historikoaren kasuan, gainera, interesatuek hura eskura dezakete gaikako webaren bidez, eta horrek onura bikoitza eskaintzen du: lehenbiziko, kontserbazio egoera ezin hobean edukitzea zuzenean ez delako manipulatu, eta bigarren, ahalik eta hedapen handiena ematea.

Orain digitalizatzeko dago, Juan Antonio Lecuonaren familiak 2011n emandako “El Diario Vasco”, “La Voz de España” eta “Unidad” egunkarietako tokiko kronika bederen, web orrian jaso ahal izateko. Asmoa da lan horri lehentasuna ematea –lan hori ezin dute Artxiboko langileek egin beharreko baliabide materialik ez izateagatik formatu handiko aleak direlako- etorkizun ez urrunean.

3.5.2. Fototekaren digitalizazioa, katalogazioa eta berriak jasotzea.

2013ko abenduaren 31n, Irungo Udal Artxiboko argazki funtsak 53.008 erregistro zituen digitalizatuak eta informatikoki katalogatuak jendeak eskuratzeko moduan, guztira 56.235 badaude ere eskaneatuak. Handik urte batera 56.620 erregistro ditu udal Fototeka digitalak (hau da, 2014. urtean zehar beste 4.700 aletik gora jaso dira). Nolanahi ere, jada eskaneaturiko 488 argazki deskribatzeko eta dagokion fitxa informatikoan jasotzeko daude oraindik herritarren eskura jarri aurretik.

Material berriaren zati handi bat Felipe Iguñizek Udalari emandako bildumakoa da, baina aldi baterako jasotako argazki eta postal ugariri ere eman zaie alta. Honako hauen jabetzakoak dira horiek: Alvaro Ripa Indart (94 argazki berri), Zaragüeta-Camino familia (126) eta Gorka Alvarez Aramburu (postalen bi album). Aparteko aipamena merezi dute jasotako 42 postalek, haien jatorrizkoak, gainera, Artxiboari eman baitizkio Iñaki Tristán Solísek.

Partikularrek etenik gabe ekartzen dituzten material grafikoak direla-eta, bilduma zaharrak bereziki, Artxiboko langileek gero eta denbora gehiago eskaini behar diote material horiek guztiak erkatzeko lanari, aurretik udal Fototekan ez daudenak bakarrik bereizi ahal izateko eta alferrikako bikoizketak baztertzeko.

Gogora ekarri behar da Datu Pertsonalak Babesteko Legea aplikaturik, estudioko erretratuak (22.000 erregistro baino gehiago 2013. urte amaieran) ez daudela eskuragarri web orriaren bidez eta aurrez aurre kontsultatu behar direla Zerbitzu honen instalazioetan. Horregatik, udalaren titularitateko nahiz titularitate partikularreko beste funts batzuen digitalizazioari eman zaio lehentasuna, horiek bai hedatu baitaitezke askatasun osoz.

Web orriaren bidez kontsulta daitezkeen baina erabilgarri ez dauden argazki erregistroen berrikuspena.

Aipatzekoa da, 2010eko ekitaldira arte egin den bezala kanpoko enpresa bat kontratatzeko hornidura ekonomikorik ez dagoenez, Artxiboko langileak berak ari direla

aipaturiko lan horiek guztiak egiten, baina behin-behinean kontrataturiko langileen laguntza izan dute digitalizaziorako. Horrenbestez, eta emaitzak ikusita, inolako zalantzarik gabe arreta handia ematen ari zaio Fototekari, eskari berezia duen zerbitzua dela kontuan izanik.

Gainera, argazkiei alta eman eta Argazki funtsean jasotzearekin batera, Artxiboan aspalditik dagoen testu dokumentazioarekin gertatzen den bezala, etengabeen berrikusten dira jada eginak dauden deskripzio idazpenak, pertsonak eta lekuak identifikatzeari begira zehaztaperen handiagoz egin ahal izateko bilaketak, deskribatzaileak erantsita, ahal den neurrian bederen data jarrita eta abar. Esan behar da, 2014ko abenduaren 31n, 1.709 direla zuzendu eta hobetu diren erregistroak.

4. EMANIKO ZERBITZUAK.

Kanpo kontsulten kapituluari dagokionean, uda partean nabarmen behera egin zuen erabiltzaileen kopuruak, erabiltzaileek zerbitzu hori asko eskatzen badute ere oporraldia aprobetxatuz.

Lehen aipatu dugun bezala, hori gertatu da Zerbitzua jendearentzako, oro har, ia itxita egon zelako (ohiko ikertzaileei bai eskaini zitzaizen arreta materialak eskuratzeko zailtasun berezirik ez zegoenean, eta Bartzelonako Unibertsitatearen izenean aldeztu aurretik hitzordua eskatua zuen erabiltzaile bati ere, propio horretarako etorri baitzen Irunera) hilabete inguru bertan obrak egiten ari zirelako. Horrenbestez, gorabehera hori kontuan izan behar da aurreko urtearekiko konparazioak egiteko orduan.

Udala osatzen duten Arloetatik barne mailan egiten diren dokumentazio edo/eta informazio eskaerei dagokienean, dokumentazioa eskuratzeko zailtasunak izan arren, zerbitzu horri errendimendu handiaren eutsi zitzaion arlo horien jarduera urritu ez zedin.



4.1. Kanpo kontsultak.

Kanpo kontsultak dira Irungo Udaletik kanpoko pertsonak egiten dituzten guztiak eta, barne kontrol gisa, tradizioz bi talde desberdinetan sailkatzen ditugu horiek: ikertzaileak eta jendea, oro har.

4.1.1. Ikertzaileak.

Memoria honen ondorioetarako, ikertzaileak dira zeregin horretarako egokituriko gelan, dokumentazioa eta prentsa historikoa kontsultatzen, gutxienez bost ordu eman dituzten pertsonak. Era horretako erabiltzaileek aholkularitza maila handia eskatzen dute haien intereseko informazioa bilatzeko, eta gehienbat horietan dira Zerbitzuan bertan dauden deskribapen tresnak (funts historikoaren inbentario orokorra, administrazio funtsaren eta prentsaren inbentario partzialak eta datu-basea) erabiltzen dituztenak, askotan, gurera etortzen direnerako gutxi gora-beherako bilaketak jada eginak izaten badituzte ere web orriaren bidez.

Bitxia bada ere, guztira 53 ikertzaile izan ziren Udal Artxiboan (2013an baino 1 gehiago). Ondoren ageri den koadroan, xehetasun gehiago emango ditugu hileroko eta guztira egin diren kontsulta kopuruaren, eskaturiko kopia kopuruaren (fotokopietan edo CDan)... inguruan.

	Dokumentuak				Ikertzaileak			
	Kontsultak		Fotokopiak		Etortzeak		Ikertz. Kop. ⁹	
	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014
Urtarrila	117	195	412	151	32	46	11	11
Otsaila	153	176	271	224	36	54	17	14
Martxoa	198	111	111	36	34	35	14	10
Apirila	54	98	23	22	12	29	7	10
Maiatza	101	101	83	51	23	27	9	12
Ekaina	117	135	61	27	21	28	9	13
Uztaila	207	88	52	8	25	15	11	8
Abuztua	488	141	106	30	45	14	9	10
Iraila	199	103	11	83	38	20	8	8
Urria	305	118	118	55	49	37	18	15
Azaroa	205	251	265	225	45	44	16	20
Abendua	140	106	201	39	38	22	12	11
GUZTIZKOAK	2.284	1.623	1.714	951	398	371	141	142

Ikertzaileen kopurua guztira ia berdina izan bada ere 2013an eta 2014an, nabarmen murriztu egin da kontsultena (hauxe da, zerbitzaturiko liburu, paper-sorta edo espediente kopurua), goian adierazi dugun bezala, Artxiboa itxita egon baitzen eskari handia izaten den denboraldi batean, eta gainera, etorri direnen kopurua ez da hainbeste jaitsi eta hileroko etorri diren ikertzaileen kopurua, berriz, ia berdina da bi ekitaldietan ¹⁰.

Guztira etorritako ikertzaileetatik 9 historialariak dira, 3 unibertsitateko irakasleak, 6 lanbide teknikoetan ibiltzen dira (arkitektoak, ingeniariak eta aparejadoreak), 4 Letrekin

⁹ Guztira bisitatu gaituztenetatik hileroko etorri diren ikertzaileen kopurua da.

¹⁰ Esate baterako, akta liburu bat edo korrespondentzia paper-sorta oso bat kontsultatzeko beharreko denbora, dokumentu gutxi batzuk osatutako espedientea izan beharrean.

zerikusia duten lanbideekin (filologoa, filosofoa, abokatua eta dokumentalista) lotuta daude, 9 beste hainbat lanbidetan ibiltzen dira, 7 erretiratuak daude, 9 ikasten ari dira, eta gainerakoak beste lanbide batzuk dituzte. Bestalde, gainerakoek ez dakigu zehatz zertan lan egiten duten barne kontrolerako bete dezaten ematen zaien ikertzailearen fitxan ez dutelako adierazi.

Horietatik 30 Irunen bizi dira, 18 Autonomia Erkidegoaren gainerakoan¹¹, 3 beste Autonomia batean¹² eta 2 atzerrian¹³.

Eskatutako kopia kopuruari dagokionean, komeni da ohartaraztea gero eta ohikoagoa dela ikertzaileek berek lortzea kopiak molde digitaleko argazki makinen bidez, horren inguruan Zerbitzu honetako langileei baimena eskatu ondoren, edo bestela, azken hori izaten da materiala eskaneatzen duena interesatuek eskaera egin ondoren.

Era berean, esan behar da, ohikoa den bezala, asko direla, ezin direlako Artxibora joan, informazioa e-mail bidez, posta arruntaren bidez eta telefono bidez eskatzen dutenak, eta ikertzaileen fitxarik ez dutenez betetzen, horiek ez dira kontatu aurreko koadroan.

Kasu horietan, Artxiboko langileak berak dira aurrekariak bilatzeari ekiten diotenak, eta beharreko txostena bidaltzen diote erabiltzaileari edo erakundeari.

4.1.2. Jendea, oro har.

Ikertzaileak alde batera utzita, jendea, oro har, esaten dugu informazio eskaerak aldiari behin egiten dituzten erabiltzaileez ari garenean, urtean zehar behin baino gehiagotan etortzen badira ere.

FOTOTEKAK JENDEARI ESKAINTZEN DION ZERBITZUA UDAL ARTXIBOAREN INSTALAZIOETAN (2013-2014)

	Datu-basearen kontsulta Albumak		Datu-basearen kontsulta		Erabiltzaileak		Kopiak	
	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014
Urtarrila	12	9	8	11	10	14	5	24
Otsaila	12	12	9	9	12	12	12	26
Martxoa	13	9	10	12	14	15	15	25
Apirila	6	12	6	9	10	11	12	14
Maiatza	10	6	7	10	11	12	16	8
Ekaina	12	6	11	12	13	13	16	7
Uztaila	15	3	13	8	16	7	38	-
Abuztua	9	6	11	5	14	6	23	2
Iraila	13	7	8	9	12	11	7	16

¹¹ 15 Gipuzkoako hainbat herritan eta 2 Araban.

¹² Zehatz esateko 2 Nafarroan eta 1 Katalunian.

¹³ Frantzian.

Urria	10	12	10	10	15	11	24	33
Azaroa	9	6	6	8	10	8	4	3
Abendua	11	3	7	8	9	8	16	15
GUZTIZKOAK	132	91	106	111	146	128	188	173

Fototekarekin hasiaz, inolako zalantzarik ez dago, oro har, herritarren artean gero eta interes handiagoa pizten duen zerbitzua dela, eta hori bereziki garrantzitsua da kontuan hartzen badugu zerbitzu hau indarrean dagoela webaren bidez orain dela urte batzuk ezkeroztik.

Halaxe erakusten du aurreko koadroan jasotako kontsulten konparazioak. Bi ekitaldiak alderatzen baditugu, aipatzekoa da jatorrizkoak paperean daudenen kontsultak murriztu egin direla, Zerbitzutik bertatik mugatu egiten delako baliabide informatikoen bidez, hala gure instalazioetan nola web orriaren bidez, egiaztatutakoetarako sarbide zuzena. Azken aukera hori erosoagoa da erabiltzaileentzat, interesatzen zaizkien argazkiak beren etxeetatik aukeratu baititzakete Zerbitzuaren ordutegiaren mugarik gabe.

Izan ere, on-line kontsulten laburpenak adierazten du Udal Fototekaren zerbitzua dela oraindik ere www.irun.org orrian gehien eskatzen den zerbitzuetako bat. Are gehiago, 341.613 sarrera izan dira guztira 2014. urtean zehar eta horrek esan nahi du % 27,4ko hazkundera izan duela aurreko urteari dagokionean, Informatika Arloak eskainitako datuak alderatuz gero argi ikusten den bezala. Honako hauek dira datuak:

UDAL ARTXIBOKO WEB ORRIAN IZANDAKO KONTSULTAK ALDERATZEN (2013-2014)

	Bisitari kopurua		Bisitatutako orrialde kopurua	
	2013	2014	2013	2014
Urtarrila	15.765	14.038	22.854	20.829
Otsaila	14.898	22.284	23.055	33.141
Martxoa	14.373	21.009	21.848	31.208
Apirila	13.832	27.974	20.260	39.448
Maiatza	21.536	16.613	31.036	24.002
Ekaina	15.985	20.041	22.709	28.688
Uztaila	10.445	22.507	15.231	31.012
Abuztua	14.894	20.946	23.250	29.817
Iraila	16.869	15.161	25.074	22.255
Urria	17.252	21.431	25.872	29.963
Azaroa	16.634	21.017	24.156	29.638
Abendua	13.119	14.840	19.461	21.612
GUZTIZKOAK	185.602	237.861	274.806	341.613

Aipatzekoa da gero eta eskari handiago nabari dela Irundik kanpoko partikularren eta erakundeen aldetik eta, bereziki adierazgarria den adibide bat jartzeagatik, 2014an baimena eskatu zen Jorge Oteizari eta Nestor Basterretxeari eskainitako erakusketa bana egiteko argazki batzuk erabili ahal izateko, eta Oteiza Museoa eta Koldo Mitxelena Kulturunean aldi hartarako argitaratutako katalogoan jasota geratu dira. Arrazoi horregatik,

ez litzateke soberan egongo tokikoa baino esparru zabalagoko komunikabideen bidez argitaratzea gero eta handiagoa dela jasota dauden argazkien kopurua, gai eta jatorri askotako argazkiak, hori eragingarria izango baita erabiltzaile berriak (espezializatuak kasu honetan bezala, ala ez), nahiz jada zerbitzura etortzen direnak, erakartzeko.

Kanpo kontsulten atal honekin bukatzeko, artxiboko dokumentazioari dagokionean, 1.323 izan dira eskatutako espedienteak (1.180, berriz, 2013an). Hauxe da, kontuan izanik uztailean eta abuztuan sarrera mugatu egin dela, gertatzen dena da kasu honetan gorantz egin dutela informazio eskariak. 1.171 kopia zerbitzatu dira guztira (1.463 aurreko ekitaldian), bai fotokopia formatuan bai digitalean. Ohikoa den bezala, Hirigintza eta Obra arloekin loturik daude gehienak (batik bat titularitate partikularreko eraikinak eta establezimenduak eraikitzeko eta berritzeko proiektuak).

4.2. Barne kontsultak.

Barne kontsultak dira Irungo Udalaren Unitate eta Arlo desberdinekin loturiko pertsonak egiten dituzten edo/eta pertsona horiek jasotzen dituzten espediente edo informazio eskaerak, hauxe da, Udalak jarduteko eta zerbitzua emateko barne zerbitzua da hertsiki.

	Kontsultak/Eskaerak		Kopiak (paperean edo/eta digitalak)	
	2013	2014	2013	2014
Lehendakaritza	175	252	248	327
Hirigintza	378	331	301	277
Ekonomikoa	55	69	401	737
Obrak eta mantenua	26	35	46	16
Kultura	26	5	9	-
Gizarte Ongizatea	2	-	-	-

Aipatu berri ditugun eskaera horietako batzuk direla-eta, gainera, dokumentu bilaketa sakona egin behar izan da eta gero txostenak idatzi behar izan dira. Horri dagokionean, aipatzekoak dira Nazioarteko Zubiak historian izan duen bilakaerarekin (haren titularitatea bereziki nabarmenduz), egungo Bimendeurrena plazaren eta udal Ospitaleko espazioekin loturikoak, Ondare Arloak eta Alkatetzako Kabineteak eskatuta, besteak beste.

5. HEDAPENA ETA ARGITALPENA.

2014ko martxoan, Informazioaren Gizarte eta Herritarren Parte Hartze Arloko Ordezkarri Pedro Alegrek eta Artxibo Zerbitzuko arduradunak prentsurrekoa eskaini zuten aurreko ekitaldian zehar izandako emaitzen berri emateko. Gainera, azken honek irratiko elkarrizketa batean ere hartu zuen parte helburu berarekin.

5.1. Serapio Mugica ikerketa beka.

2014ko urtarrilaren amaieran jakinarazi zitzaion Alfredo Morazari “Serapio Mugica ikerketa bekaren” XIII. Edizioa bere alde esleitu zela “Una aproximación a la arquitectura

defensiva de Gipuzkoa en el siglo XIX. Estudio sobre la evolución de las fortificaciones en Irun” izeneko ikerketa proiektua aurrera eramateko.

Era berean, Beka horrekin loturik, aipatzekoa da hirugarren hiruhilekoan “Antza” enpresari esleitu zitzaioala “Infraestructuras hidráulicas en la desembocadura del Bidasoa. La subcuenca hidrográfica de Jaizubia (siglos XVI-XVIII)” izeneko liburua inprimatzeko lana. Beka beraren XII. edizioan irabazle suertatu zena, hain zuzen ere. Lauren Etxepare, Iñaki Garrido, Josu Laguardia eta Jesús Laguardia dira ikerketa horren egileak eta 2014. urte hasieran utzi zen Zerbitzu honetan. 2015eko otsailean aurkeztu eta salgai jartzea aurreikusten da.

5.2. Bisita gidatuak.

Kontuan izanik obrak egin behar izan zirela eta zerbitzuen prestazioa mugatu egin behar izan zela, 2014. urtean ez zen egin ohikoa den bisita gidatuen jardura hori, ikasleei zuzentzen zaiena, Zerbitzua nahiz zerbitzuaren edukia eta funtzionamendua gazteenei ezagutzera emateko.

Hala ere, martxoan, Artxiboko arduradunak bisita bat antolatu zuen salbuespen gisa, eta udaletxea erakutsi zion Belaskoenea ikastetxeko ikasle talde bati.

5.3. Kolaborazioak.

- "Historia de Irun" lanaren argitalpena, hedapena eta salmenta; Sagrario Arrizabalaga eta Lourdes Odriozola dira egileak eta 2014ko martxoan aurkeztu zen.
- José Solisen "La Inmaculada", Vicente Berruetaren "Minazuri" eta Fernando Mikelarenaren "Suelo en rosa" koadroen aldi baterako zesioa (Udal Pinakotekako obrak dira horiek eta udal Artxiboan daude jasota), Ficoban egindako erakusketarako. Era berean, eta arrazoi beragatik, beste koadro batzuen datuak bildu dira Kultura Arloak eskatuta.
- Arlo horrek berak eskatuta, José Manuel Martínezek emandako argazki gehienak digitalizatu ziren Artxiboan eta beste erakusketa batean jarri ziren ikusgai, herriko musika talde desberdinekin lotua, urte amaieran Amaia Kultur Zentroan egin zena, hain zuzen ere.
- Era berean, barne mailan eta Plan Estrategikoko Arloak berariaz eskatuta, hurrei eta gazteei zuzendutako “Maleta pedagogikoak” zituen testu historikoak berrikusi ziren.
- Zenbait dokumentazio bilatu eta txostenak egin ziren honako hauek eskatuta: Estatuko Meteorologia Agentziak (Klimatologiaren historiarekin loturik); Posta Zuzendariordeak (trenbidearen iritsierak izan zuen eraginaren eta Hiriko trenbide azpiegituren bilakaeraren inguruan, zigilu bat ateratzeko informazio laguntza gisa); eta “El Diario Vasco” eta "Noticias de Guipúzcoa" egunkariak (Irungo Hilerrari eta hartan lurperatutako pertsona ospetsuen inguruan, Santu Guztien Egunerako edizio berezietarako), besteak beste.

- Elkarlanean aritu gara, jada ohikoa den bezala, “Luis de Uranzu Kultur Taldea” kultur taldeko lan-taldearekin.
- Prentsurrekoak eta hainbat elkarrizketa egin dira Artxiboa ezagutzera emateko.
- Hainbat bileratara joan gara kulturaren munduarekin loturiko pertsona ezagun eta erakundeekin eta Kale Batzordearekin...

5.3. “Memoria Historikoaren” alorreko testigantzak biltzea.

Gerra Zibilari nahiz izan zituen ondorioei buruzko dokumentazioa badago Udal Artxiboan, baina esan behar da aski urria dela 1936ko uztaileko altxamenduaren eta Hiria hartu zenaren artekoa, hiriak jasan behar izan zuen sutearen ondorioz, besteak beste. Bestalde, geroagoko arazketa eta errepresio garaietakorik ere ez dago edo dagoenak oso ikuspegi lerratua eskaintzen du oso egoera jakin batean eman izanagatik.

Testu euskarrian dagoen materiala da kasu guztietan, eta gertakizun haiek bizi izan zituzten pertsonen testigantzekin osatzea interesgarria izango litzatekeela ikusita, Alkatetzak eskuordetuta, espezialista baten kontratazioa sustatu du Zerbitzu honek (Aiala Oronoz "Nicolás Guerendiain" Elkartearen izenean) testigantza horiek biltzeko.

2013. urte amaieran hasi eta 2014. urtean zehar lan hori egin ondoren, guztira 21 testigantza¹⁴ bildu dira Udal Artxiboan, hala formatu digitalean nola paperean (transkripzioak), eta erabiltzaileen eskura daude elkarrizketatuek gerra, erbesteratzea, aberriratzea, arazketa, ondasunen konfiskatzea eta Diktaduraren garaiko gainerako errepresio kontuak nola bizi izan zituzten lehen eskutik ezagutu ahal izateko.

7. ARTXIBOKO GASTUAK-SARRERAK.

Udal aurrekontuan aurreikusitako partida desberdinak, 2014an Udal Artxiboarekin zuzenean lotuak, honako hauek izan ziren eurotan:

Kontzeptua	
Oinarrizko ordainsariak	39.274'00
Ordainsari osagarriak	66.899'00
Langile funtzionarioen Gizarte Segurantza	31.940'00
Prentsa, aldizkariak, liburuak	800'00

¹⁴ Zehatz esateko, honako hauenak: Ricardo Arruti Idiaquez, Nikolas Bengoetxea Landabaso, Marcelo Usabiaga Jauregui, Violeta Sanz López, Armando Martínez Bermejo, Carlos Quintana Gaduz, Valentín Olaizola Iguñiz, Carmen Zubillaga Etxarri, Francisco Lusa Velasco, Eulogio Díez Sánchez, Juncal Violet Urtasu, Martín Zabalo Peluaga, Fernando Arozena, Angela Rodríguez Fernández, Milagros Pérez Barrasa, Santiago Campos Pérez, Jaime Rodríguez Salís, Miguel Angel Pomar Juarros, Amgèle Peyreelongue, Carmen Mura Ezenarro eta Luis Perea Bustos.

Koadernatzea	1.000'00
Energia elektrikoa	20.000'00
Jarduera sozio-kulturalak	2.400'00
Beste hainbat gastu (liburuaren argitalpena)	5.500'00
Dietak, lokomozioa, trasladoak	400'00
Beste kalte-ordainak / Hainbat gastu	3.963'00
Azterketa-lan teknikoak	3.451'00

Bestalde, 2014. urtean zehar 2.033,52 euro sartu ziren zegokion banku erakundean, 2013. urtean zehar eskainitako dokumentazioaren eta argazkien erreprodukzio zerbitzuari eta Udalak ateratako argitalpenen salmentari zegozkienak.